

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gamiz-Fikako Udala****Euskera ikasteko dirulaguntzak emateari buruzko Ordenantza behin betiko onestea.**

Gamiz-Fikako Udalak Euskera ikasteko dirulaguntzak emateari buruzko Udal Ordenantzearen hasierako onespina argitaratu eban Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Urriaren 10ean. Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua betez —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emondako idazketearen arabera—, jagokon espedientea jente-aurrean egon da 30 egun balioduneko epean, eta ez da ezelango erreklamaziorik aurkeztu. Epe hori igarota, ez danez ezelango erreklamaziorik aurkeztu, Udalbatzak hartutako beren beregiko erabagiak behin betiko onetsizat jo dau Ordenantzea. Hori dala-ta, behin betiko onesten da Euskera ikasteko dirulaguntzak ematea arautzen dauen Udal Ordenantzea, eta osorik argitaratuko da.

Gamiz-Fikan, 2019ko zemendiaren 29an.— Alkatea, Asier Larrabe Uriarte

**HELDUEN EUSKALDUNTZEA SUSTATZEKO
DIRU-LAGUNTZAK ESKURATZEKO ARAUDIA**

HELDUEN EUSKALDUNTZEA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. artikulua. — Xedea

Araudi honen xedea da 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak eta ikastaroak egi-teagatik diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzea da.

2. artikulua. — Aurrekontu kreditua eta diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntza hauek onartzeko dagoen kreditu erabilgarria 1.500,00 eurokoa da.

3. artikulua. — Onuradunak

Eskaera aurkeztu eta onuradun gauzatu ahal izango dira:

Gamiz-Fikan errolatutako pertsonak (deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean eta aurreko 12 hilabetetan zehar etenik gabe), dagokion ikasturtean euskara ikasketak edo ikastaroak egin dituztenak.

Ikasketa eta ikastaro horiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- 16 urte baino gehiago izatea.
- HABE-k homologaturiko euskal-tegi publiko zein pribatuetan egindako ikastaroak.
- Ikaslea Uribe Butroe/Mungialde mankomunitateko euskal-tegi edo talde homologa-turen batean aritu behar izango da ikasten. Ikasketa, lan, maila edo ordutegiagatik ikastaroa beste euskal-tegiren batean egin behar izan badu ziurtagirian arrazoia adierazi behar izango da.
- Curriculum berriaren araberrako azpimailak (A0etik C1era): A1A0 / A1A1/ A2A1 / A2A2 / B1A2 / B1B1 / B2B1 / B2B2 / C1B2 eta C1C1.
- Diruz lagundu ahal izango dira bai urte osoko ikastaroak (urritik ekainera), baita uztailen, abuztuan eta irailean egindako ikastaro trinko eta barnetegiak ere. Bar-netegien eta trinkoen kasuan matrikula gastuak baino ez dira diruz lagunduko eta inola ere ez estantzia, garraio eta bestelako gastuak.

Ez dira diruz lagunduko ikastetxeek edo horko G.E.-k eskolaz kanpoko jarduera gisa antolatutako euskara ikastaroak. Edonola ere, ezin izango dira onuradun gauzatu, aza-roaren 17ko 33/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan zehazten diren egoeran dauden pertsonak, salbu diru-laguntzaren izaeragatik arau bereziren bitartez salbuespena zehazten denean.

Errolatzearen baldintza ofizioz egiaztatuko da.

4. artikulua. — Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2019ko abenduaren 9an bukatuko da. Eskabideak astelehe-netik barikura 8:00 eta 15:00 orduak bitartean egingo dira, Ergoien auzoko 62. zenbakian dagoen Gamiz-Fikako Udal Erregistroan aurkeztuko dira, eta horretarako 1. Eranskinean agertzen den eskabide eredu-a erabiliko da. Horrez gain, eskabideak azaroaren 26ko 30/1992 legearen 38.4 artikulua-k aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez ere aurkeztu ahal izango dira.

2. Eskabidearekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:

- a) Eskatzailearen eta, bidezkoa balitz, ordezkariaren NANaren fotokopia, baita agindutako ordezkapenaren frogagiria ere. Eskatzailea adin txikikoa bada, es-kaera gurasoren batek edo tutoreak egin beharko du, familia- liburua aurkeztuz.
- b) 2. artikuluan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko ezintasun baldintzetan edo egoeran ez egotearen ardurapeko adierazpena (eredu ofizialaren araberrakoa).
- c) Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean egotearen egiaztagi-riak. Hala ere, eskatzaileak ziurtagiri horiek aurkeztu beharrean, xede berbeta-rako ardurapeko adierazpena aurkeztu ahal izango du (eredu ofizialaren arabe-



rakoa), uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluekin bat etorritik.

- d) Xede berbera finantzatzeko asmoz beste erakunde edo erakunde batzuetan aurkeztu edo aurkeztuko den bestelako eskabideri buruzko zinpeko adierazpena. Adierazpen horretan zein erakundeari eskatu eta eskatu nahi diren diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko da (eredu ofizialaren arabera).
- e) Ikaslea ikasten aritu den euskaltegiak edo HABE-k homologatutako ikastegi bakoitzak egindako ziurtagiria, ondoko hauek zehaztuz:
 - Matrikula gisa ordaindu den/diren zenbatekoa/k.
 - Ikaslea eskolaratu den orduen ehunekoa. Euskaltegiak ikastaro horretan emandako orduak eta ikasleak jasotakoak zehaztuko dira.
 - Egindako matrikula eta jasotako eskolen epealdia zehaztuko da, hasiera eta amaiera datak zehaztuz.
 - Epe horretan egindako maila edo mailak, eta horiek gainditu diren ala ez zehaztuko da.

Eskaera egiteko agiria eta artikulua honetan eskatzen diren gainerako eredu ofizialak Gamiz-Fikako Udaleko webgunean egongo dira eskuragarri (www.gamiz-fika.eus), baita udal bulegoetan ere.

Aurkeztutako eskabide edo dokumentazioan akats, hutsune edo konpon daitekeen bestelako errurik egotekotan, eskatzaileari jakinarazpena igorriko zaio eta bi laneguneko epea emango zaio arazoa konpontzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Epealdi horretan gorabeherak zuzentzen ez badira, interesdunak diru-laguntzari uko egin diola joko da eta ez da aintzat hartuko.

5. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko eta emateko irizpideak

Dagokion ekitaldirako Aurrekontua Gauzatzeko Arauan jasotakoarekin bat etorritik, diru-laguntzen zenbatekoa hurrengo arauen arabera zehaztuko da:

- Errolda: Gamiz-Fikan errolatuta egotea euskara ikastaroak iraun bitartean.
- Asistentzia: Ikastaroaren %80ko asistentzia bete beharko du. Nahitaezko bete-beharrengatik eta gaixotasun bajengatik justifikazioak erakunde eskudunak egingo ditu.
- Aprobetxamendua: Ikastaroari dagokion azpimaila(k) gainditu behar izango da/dira.
- Ziurtagiria: Datu guztiak jasotzen dituen ziurtagiria entregatu behar du interesdunak udalean, dagokion euskaltegiako arduradunak sinatuta.
- Zenbatekoak:
 - 1) Iraupen luzeko langabeei matrikularen %100a emango zaie, betiere, lan egoera justifikatzen badute eta aipatutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradun bakoitzak jaso ahal izango duen gehienezko kopurua 425 eurokoa izango da.
 - 2) Beste kasu guztietan matrikularen %70a emango zaie, betiere, aipatutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradun bakoitzak jaso ahal izango duen gehienezko kopurua 300 eurokoa izango da.

6. artikulua. — Instrukzioa eta ebazpena

Emate prozedura norgehiagokako lehiakoa izango da. Prozedura ebazteko organo ahalguztaria Alkatetza da Udal idazkaritzak instrukzio prozedura garatuko du. Prozedura amaitu, ebatzi eta jakinarazteko epea ez da sei hilabetekoa baino luzeagoa izango. Behar moduko ebazpen jakinarazpena jaso gabe epe hau igarotzekotan, administrazio-isiltasunaren bitartez, eskabideari uko egin zaiola ulertzeko eskubidea du interesdunak. Prozeduraren ebazpena urriaren 1eko 39/2015 legearen 40. eta ondorengo artikuluek xedatzen dutenaren arabera jakinaraziko da. Emandako ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dio eta horren kontra; Udal honen alkatearen aurrean aukerako berraztertze helegitea aurkeztu ahal izango da, edo zuzenean txandaren arabera egokia den Bilboko Administrazio auzitegiaren aurrean Administrazio auzi-bidezko errekurtsioa



ere aurkez daiteke. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluek xedatzen dutenarekin eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 legearen 46. artikuluekin bat eginez.

7. artikulua.— *Beste diru laguntza batzuekiko bideragarritasuna*

Xede berbera duten beste diru-laguntza batzuk jaso daitezke, baina horren ondorioz ezingo da inolaz ere 5. artikuluan zehazten den gehienezko diru-laguntza kopurua gainditu. Horrelakorik gertatzekotan eman beharreko zenbatekoa gutxitu egingo da edo soberan emandako kopuruak itzuli behar izango dira, kasu bakoitzean bidezkoa denaren arabera.

8. artikulua.— *Diru laguntzak ordaintzea*

Deialdiaren prozedura ebatzi eta interesdunei behar moduko jakinarazpena egin ondoren, onartutako zenbatekoak ordainduko dira hilabeteko epean gehienez, eta arautegiko izapideak bete eta gero.

9. artikulua.— *Datuen babesa*

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Legeak (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa) xedatzen duenarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datu hauek Euskara Diru-Laguntzak artxiboan sartuko ditugula, aurkeztutako eskaera edo azalpenaren ondoriozko ekintzak kudeatzeko eta tramitatzeko helburu bakarrarekin. Nahi duzunean erabil ditzakezu datuak eskuratu, zuzendu, haien aurka egin, ezabatu, haien tratamendua mugatu, transferitu eta aurka egiteko legeak ezarritako eskubideak.



I. ERANSKINA / ANEXO I

**EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRU-LAGUNTZAK
SUBVENCIONES POR ESTUDIOS DE EUSKERA**DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA
SOLICITUD PARA TOMAR PARTE EN LA CONVOCATORIA**Eskatzailearen datuak / Datos del/a solicitante**

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI
Helbidea / Dirección	PK / CP	Herria / Localidad
Telefonoa / Teléfono	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico
Diru-laguntza ordaintzeko banku datuak (IBAN) / Datos bancarios para el pago		

Ordezariaren datuak / Datos del/a representante

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	
Helbidea (eskatzailearena ez balitz) / Dirección (en caso de ser distinta a la del/a solicitante)	
NAN / DNI	Telefonoa/ Teléfono

Erantsitako dokumentazioa / Documentación que se adjunta

1.
2.
3.
4.



II. ERANSKINA / ANEXO II

EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRU-LAGUNTZAK
SUBVENCIONES POR ESTUDIOS DE EUSKERA

ARDUREN AITORPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI
------------------------------------	-----------

ARDURAZ AITORTZEN DUT / DECLARO RESPONSABLEMENTE

Ez nagoela diru laguntzak jasotzea eragozten duen ezintasun egoeran, indarrean dagoen legediak xedatzen duenaren arabera eta, zehazki Diru- Laguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 atalean xedatzen diren egoeratan.

Que no me hallo incurso/a en ningún supuesto que impida obtener la condición de beneficiario/a de subvenciones según legislación vigente y , en particular, de los supuestos previstos en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Xede berbera finantzatzeko beste diru laguntzarik eskatu/ jaso ez dudala eta eskatzea/ jasotzea aurreikusten ez dudala.

Que no he solicitado/obtenido ni preveo solicitar/obtener otras subvenciones para financiar el mismo objeto.

Xede berbera finantzatzeko hurrengo diru-laguntzak eskatu(ko) edo jaso(ko) ditudala:

Que he solicitado/obtenido o preveo solicitar/obtener las siguientes subvenciones para financiar el mismo objeto:

Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko bete-beharretan egunean nagoela.

Que me hallo al corriente de las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.

	Erakundea / Entidad	Zenbat / Importe (€)
A		
B		
C		

Data / Fecha

Sinadura / Firma